

GABON

Belengo estalpe bat,
 aberien toki,
 gaurtandik izango da
 Jaunaren echadi:
 bertan dagon Aurrari
 anei laztanaldi,
 zoriontsu nitzake,
 ematen baneki.

Lorlai dagokiya
 usaya banaro,
 nabaitzen det landu dan
 baratzen goizaro.
 Belenen gaur badira
 lora-eder asko,
 lorien egillia
 seaskan baitago!

Choriyentzat aldichar
 otza dan negute,
 bañan gaur arratzian
 atsegin badute!
 Negu gogor t'otzena
 udaberri uste,
 t'illun dirauen gabaz
 Argiya dakuste.

Ekin chori maitiak,
 ekin abestiyan,
 loriak usai goxo
 dariten tokiyan;
 zeon eta lorien
 urre t'alderdiyan,
 Jauna lotaritzen da
 seaska churiyan!

Orrerontz zale nago
 aspaldi ordia,
 t'opa det tartecho bat,
 ikuspen tokia,
 ler daukadan ezker
 antzi zakontia:
 Jauna esnaratzian
 orchen egotia!...

DONOSTI